

## 5 - 7 urte bitarteko OTOITZA

---

### Entzuteko:

*Begiak itxi eta abestia etxean eta etxeok abestuko balute bezala entzutera gonbidatu.*

**ENTZUN abestia (Betania Music) – ESTEKA:** <https://pastoralbetania.org/etapas/belen/>

### Talde handian gogoeta egiteko:

Denok behar dugu Jainkoak egin digun oparirik ederrenetako bat, maite gaituzten eta zainduko gaituzten pertsonak. Gure leku berezi hori behar dugu non maitatzen, elkarbanatzen laguntzen eta barkatzen ikasiko dugun.

Batzuetan, gure etxeetan barreak, besarkadak eta jolasak izaten dira; eta beste batzuetan, haserreak edo tristurak egon daitezke... baina Jesusi beti elkar maitatzeko eskatu behar zaio, zerbait ondo ateratzen ez denean ere. Berak badaki oso garrantzitsua dela, familia bat ere izan baitzuen: Maria eta Jose. Maitasunez zaindu zuten eta maitatzen irakatsi zioten. Gurekin bizi diren pertsona guztiek besteak zaintzen eta maitatzen irakatsi behar digute. Etxean laguntzen dugunean, entzuten dugunean, eskerrak ematen ditugunean edo barkamena eskatzen dugunean, gure **etxean dagoen maitasuna hazten laguntzen ari gara.**

Eska diezaiogun Jainkoari gure familiak bedeinka ditzala, eta ez diezagula inoiz maitasuna, bakea eta barkamena falta etxean.

---

### Elkarrekin otoitz egiten dugu eskutik:

*Jesus, Maria eta Jose,  
maitasunak elkartutako familia izan zineten.  
Lagun iezaguzue etxean maitatzen,  
gurekin bizi direnak zaintzen  
eta pozez, barkamenez eta ulermenez betetako etxea eraikitzen.*

**Gure aita...**

## 8 - 10 urte bitarteko OTOITZA

---

### Ezagutzeko:

ESKOLARAKO BIDEA – Trailer (TRAILER ) <https://youtu.be/SXCOElrSzs?si=BUaTeH55jbYJCrPE>

### Gogoetarako:

Egunero eskolara joateko aukera izatea errealitate paregabe bat da eta askotan honetaz konturatzea eta eskertzea ahazten zaigu. Eskolan irakurtzen, idazten, pentsatzen, elkarbanatzen eta amets egiten ikasten dugu. Baina baita besteekin bizitzen, besteak errespetatzen eta elkarrekin hazten ere.

Munduko haur guztiek ezin dute berdina esan eta ez dute guk dugun aukera egunero eskolara joateko. Batzuetan ezin dira eskolara joan lan egin behar dutelako, besteetan etxetik gertu eskolarik ez dagoelako edo bizi diren herrialdean gatazka handi bat dagoenez, eskolara joateak bizia arriskuan jartzea esan nahi dutelako.

Horregatik, eskolara etortzen garen bakoitzean, poztasunez eta esker onez egin behar dugu, jakinda Jainkoak ikasteko eta pertsona hobeak izateko aukera ematen digula.

Jesus ere haurra izan zen, eta irakatsi zioten irakasleak izan zituen. Berak jakinduria eta esfortzua baloratzen zituen eta guk ikasten duguna, ongia egiteko erabiltzera gonbidatzen gaitu.

Eska diezaiogun Jainkoari bedeinka ditzala gure irakasleak, lankideak eta familiak, elkarrekin, jakindurian eta maitasunean hazten jarrai dezagun.

---

### Elkarrekin otoitz egiten dugu:

*Jesus jauna, nire eskolagatik, nire irakasle, lagun eta familiagatik, liburuengatik, jokoengatik eta egunero ikasten dudan guztiagatik.*

*Lagundu aukera hau pozez aprobetxatzen, gauza berriak ikasten eta ikasten dudan hori besteei laguntzeko erabiltzen.*

**Gure aita...**

## 10 - 12 urte bitartekoen OTOITZA

---

### Gogoeta egiteko:

Jainkoak gauza asko oparitzen dizkigu egunero: familia, lagunak, natura, osasuna... Eta opari horien artean, oso garrantzitsua den bat dugu: ikasteko aukera.

Frantzisko Aita Santuak gogorarazi digu, hezkuntza guztion eskubide eta erantzukizuna dela, ez haurrena bakarrik. Eskolatik ateratzen garenean ez da ikasteko prozesua bukatzen: bizitza osoa aurkitzen, hazten, ulertzen eta aldatzen jarraitzen dugu.

Pertsona heldu askok ere ikasten dute: batzuk lanbide bat ikasten dute, beste batzuk familiak hobeto zaintzeko prestatzen dira, eta beste batzuk, migratzen duten pertsonak bezala, hizkuntza berri bat, ohitura berriak, lege berriak... ikastera behartuta egoten dira.

Pertsona hauek erakusten digute ikasteak ez duela adinik, eta gainditzeko nahia Jainkoarengan konfiantza duen bihotzetik datorrela. Mundu osoa gela handia izan daiteke ikasteko gogoia badugu.

**OHARRA: otoitza dinamizatzen duen pertsonak Itaka-Escolapios-en Alfabetatze proiektuaren fitxa erakustera gonbidatzen dugu, ikasleei errealitate hau aurkezteko.**

---

### Talde handian hitz egiteko eta otoitz egiteko:

- Ezagutzen al dugu zerbait berria ikasten ari den adineko norbait? Zer ikas dezakegu haien ahaleginetik?
- Nola lagun diezaiekegu gure hezkuntza-aukera berberak ez dituztenei?

Isilune baten ondoren, gure otoitzak aurkezten ditugu:

- Eskolara joan ezin diren haur guztiengatik.
- Etorkizun hobe bat bilatzen edo ikasten ari diren pertsona helduengatik.
- Irakasleengatik, beti maitasunez irakatsi dezaten.
- Gure alde, pozez eta esker onez ikas dezagun.

**Gure aita...**

## 12 - 15 urte bitartekoen OTOITZA

---

### Entzuteko:

LOS INCONTABLES (Ain Karem) [https://www.youtube.com/watch?v=7nOrzRyQRDY&list=RD7nOrzRyQRDY&start\\_radio=1](https://www.youtube.com/watch?v=7nOrzRyQRDY&list=RD7nOrzRyQRDY&start_radio=1)

### Gogoetarako

Eskolapioen ikastetxe eta zentroetan dauden haur eta gazteak Jaunaren presentzia adierazten digute, baita haien familiak eta inguruak ere Jainkoaren presentzia adierazten dute. Calasanzek Jainkoaren keinuak irakurtzen jakin zuen bere garaian, eta zuk? Egunero, gure hezkuntza-, familia- eta lan-ohituren artean, Jainkoa gure inguruan daudenengan aurkezten zaigu, baita gure pertsonan ere, gure mugetan eta baita gure altxorretan ere.

Zu ezagutzeko, eskertzeko eta jarraitzeko gai izan gaitezten.

### Otoitza isiltasunean:

Zure Seme Jesusek erakutsi zigun otoitzarekin dena eskatzen dizugu

**Gure aita...**

## 15 - 18 urte bitartekoen OTOITZA

---

### **BOLUNTARIOTZAREN INGURUKO BIDEOA:**

<https://www.youtube.com/watch?v=cbDBvKjpC94>

### **Entzuteko eta ezagutzeko:**

Itaka-Escolapios fundazioan egiten dugun boluntariotza honako puntu hauekin lotuta doa beti:

- Guztiontzako kalitatezko hezkuntzari lehentasuna ematen dion misio eskolapioarekin.
- Calasanzek esan zuen “Piedad y letras” esamoldearekin
- Pertsona eta gizartea eraldatzeko nahiarekin.

**DILEXI TE-n,** Leon XIV.a Aita Santuak 2025ean idatzitako **pobreen maitasunari buruzko aholtza apostolikoan,** honako hau irakur daiteke:

*XVI. mendean, San Jose de Calasanz-ek, Erroma hiriko gazte txiroen heziketa eta prestakuntza faltak txundituta, Trastevereko Santa Dorotea elizari erantsitako areto batzuetan, Europako doako lehen herri-eskola publikoa sortu zuen. Ondoren sortuko zenaren lehen hacia besterik ez zen izan. Eskolapioak izenez ezagutzen dugun “Orden de Clérigos Regulares Pobres de la Madre de Dios de las Escuelas Pías” sortu zuen, gazteei Ebanjelioaren jakituria egunerokotasuneko ekintzekin lotuz irakurtzen irakatsiz. Izan ere, apaiz ausart hau “eskola katoliko modernoaren benetako sortzailetzat” jo dezakegu, “gizakiaren heziketa integrala bilatzen duena eta denontzat zabalik dagoena”. [Dilexi te, 69]*

Eta baita ere:

*Jainkoarengan dugun maitasunak pobreekiko maitasunarekin bat egiten du. Jesusek esaten zuen: "Behartsuak beti izango dituzue zuekin" (Mt26,11) eta honekin batera adierazten du: "Ni beti egongo naiz zuekin" (Mt 28, 20)., Jainkoak esandako hitzak datozkigu burura: "Nire anai-arrebetako txikienei egindako hori, niri egin didazue! (Mt 25,40). Ez gaude ongizatearen ortzimugan, Errebelazioan baizik; boteretik eta handitasunik ez duenarekiko harremana izan da historikoki Jainkoarekin elkartzeko funtsezko modua. Behartsuengan, berak badu zerbait guri esateko. [Dilexi te, 5]*

*Ziur nago pobreen aldeko lehentasunezko aukerak aparteko berrikuntza sortzen duela bai Elizan eta baita gizartean ere, autoerreferentzialtasunetik askatzeko gai garenean eta haien hitza entzutea lortzen dugunean. [Dilexi te, 7]*

### **Otoitz egiteko:**

Aita eskatzen dizugu, munduarekiko begirada aldatu dezagun, gure inguruan gertatzen denaz konturatu gaitezen. Bereziki zailtasun handiak bizi dituztenak ikus ditzagun eta Zugandik urrun bizi direnei lagun diezaiegun begiak eta begiradak irekitzen.

Aita, Calasanzek izan zuen ausardia izan dezagun, aurrera pausoak emateko errealitate sozial eta pertsonalak aldatzen saiatzeko. Gure denbora, otoitza eta bizitza eskaintzeko ausardia ere izan dezagun, misio eskolapioaren alde, gure esku egon daitekeen horretan.

**Gure aita, ....**

CAMPAÑA ITAKA ESCOLAPIOS . CURSO 25/26

# 25 AÑOS EXTENDIENDO RAÍCES